



Salba...

dezagun...

ERGATIBOA!!

Salba dezagun
ERGATIBOA!!



Zenbatsu joan zineten manifestaziora?

-TSU atzizkiak bi erabilera nagusi ditu:

(1) Izenari erantsita, izena adjektibo bihurtzen du, eta adjektibo horrela sortuak zerbaiten ugaritasuna adierazten du:

EURI+ -TSU = EURITSU

Euri ugarikoa, euri asko egiten duena.

Euskaltzaindiaren Hiztegia

- Egun euritsu eta haizetsu batean joan ginen mendira.
 - Euri asko ari zuen eta haize handia zebilen egun batean...
- Gainera, baso sasitsu (sastrakatsu) bat zeharkatu behar izan genuen.
 - Gainera, sasiz (sastrakaz) beteriko baso bat...
- Egun benetan gorabeheratsua izan genuen.
 - Gorabehera asko izan genuen...
- Nekearen nekez, betazpitsu heldu nintzen etxera.
 - Betazpi handiekin heldu nintzen etxera.

abantailatsu, adimentsu, adintsu, adiskidetsu, ahaltsu, aintzatsu, alaitsu, aletsu, arrakastatsu, belartsu, bihitsu, garautsu, garrantzitsu, gogotsu, grinatsu, ihitsu, irribarretsu, irrikatsu, irritsu, istilutsu, jakinguratsu, jariotsu, karetsu, koipetsu, laidotsu, likatsu, lizuntsu, mainatsu, osansuntsu, pikortatsu, usaintsu, zarpailtsu, zimurtsu, zirimolatsu, zoriontsu...

-TSU atzizkiak bi erabilera nagusi ditu:

(2) Galdetzaileei eta zenbait adjektibo, adberbio eta izeni erantsita, "gutxi gorabehera¹" adierazten du:

ZENBAT+ -TSU = ZENBATSU

Zenbat, gutxi gorabehera?

Euskaltzaindiaren Hiztegia

- Zenbattsu joan zineten manifestaziora?
 - Gutxi gorabehera, zenbat joan zineten manifestaziora?
- Adin berttsukoak² dira.
 - Adin bera dute, gutxi gorabehera.
 - Ia adin bera dute.
- Ikasleek lan berdinttsuak bidali zizkidaten.

¹ Gogoratu: * gutxi gora behera, *gutxi gora-behera

² Gogoratu: * beretsu



-TSU = gutxi gorabehera (adibide gehiago)

✓ bezalatsu(ko), honelatsu(ko), horrelatsu(ko), halatsu(ko), antzeratsu:

- Duela bi urte bezalatsu gabiltza.
- Geroko egunak aurrekoak bezalatsukoak izan ziren: aspergarriak.
- Plangintzak antzeratsu jarraitu zuen.
- Guk ere horrelatsu egin genuen.
- Horrelatsuko iruzkinak entzun behar izan genituen.

-TSU = gutxi gorabehera (adibide gehiago)

✓ galdetzaileetan:

- noiz**tsu**
- nola**tsu**
- nolako**tsu**
- non**tsu**
- non**tsu**ko
- non**tsu**tik
- nor**tsu**
- nor**tsu**
- zenba**tsu**
- zert**tsu**
- zein**tsu**
- zer-nola**tsu**ko¹

- Nort**tsu** zen edo zert**tsu** bizitza eraman zuen?
- Nont**tsu** ote daude izar horiek?
- Nahi genuke erran, noiz**tsu** eta nol**tsu** fededun bilakatu ziren.
- Eri handien galbideak zein**tsu** diren jakitea.
- Zenba**tsu** urte ditu?
- Haur horietan zenba**tsu**k ezagutzen dituzte euskaraz urteko hamabi hilabeteak?

Euskaltzaindiaren Hiztegitik harturiko adibideak

¹ Gogoratu: marra arauzkoa da (**zer nolako*).

-TSU = gutxi gorabehera (adibide gehiago)

✓ ordu, egun, aste, urte, mende, garai izenekin:

- Garai**tsu** hartan hasi zinen irakasle unibertsitatean, ezta?
○ Gutxi gorabehera, garai hartan...
- Garai**tsu** horretan gertatuko zen gertatu behar zuena.
Bernardo Atxaga: *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, Erein, 1984.
- Beti etorri ohi zen bazkari-ordut**tsuan**, eta zait sekula ahaztuko nola esertzen zen sukaldean...
Amets Arzallus: *Rikardo Arregi: "Niretzat elbarritasun bakarra burukoa da"*, Argia, 2006.
- Urtero, egunt**tsu** hauetan, liburutegia ordenatzeko lana hartzen du...
Anjel Lertxundi: *Ordenatzen*, Hitz bete, Berria. Info.
- Michelle Obamak, duela bi urtet**tsu** Hegoafrikara joan zenean, eskerrak eman zizkien *apartheid* erregimenaren aurka borrokatu zirenei.
Xabier Izaga: *Mandela eta Tabua*, Gara, 2013.
- Argazkiko urtet**tsu** horietan, bi haritatik ari nintzen. Gitarrarekin nolabait lagundurik...
Estitxu Eizagirre eta Ixiar Eizagirre: *Juan Garzia: "Irakurle neurotikoa izan behar du itzultzaileak"*, Argia, 2002.

-TSU = gutxi gorabehera (adibide gehiago)

✓ Zenbakiekin (**hamarrekoak, ehunekoak, milakoak**, oro har):

- Gauza bertsua gertatu zitzaien britainiarrei orain ehun**tsu** urte.

○ ...ehun urte gutxi gorabehera... / ...ia ehun urte... / ... ehun bat urte... / ...ehun urte inguru...

Anjel Lertxundi: *Estrategiak*, Hitz bete, Berria, 2009/12/03.

- Duela hoge**tsu** urte, egunkari guztien lehen orrialdeak zientziaren azken mirariaren berri eman zuen ...

François Jacob: *Sagua, eulia eta gizakia*, ZIO bilduma, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 2004, Itzul: Juan Garzia.

- Jacuzziaren bazterrak utzirik, emakumea (...) berrogeita hamart**tsu** zentimetrora hurbildu zitzaion.

Patxi Zubizarreta: *Ileak Bainuontzian*, Narrazioak. Berria.

- Itzal haren baitan hirurehun**tsu** bildu ginen...

Patri Urkizu: *Etsipenez*, Elkar, 1994.

- 1979ko apirilaren 14ko Ministro-agindua, farmaziak jartzeko distantziak neurtzeari buruzkoa, ehun eta berrogeita hamart**tsu** hitz dituen; alegia...

Anjel Lobera: *Itzulpena Auzitegietan eta Administrazioan*, EIZIE, 1997.



Mila eta bostehun**tsu** lagunek hartuko genuen parte manifestazioan.